

**Egilea:** Laia Araiztegi de la Serna

## EMAKUMEEN ETA PROTAGONISTEN BIDAIA HISTORIAN ZEHAR

Nire iritziz, Historiak ez du protagonistarik. Izan daiteke pertsona garrantzitsuak egotea egin eta aurkitu dituzten gauzengatik. Baina protagonistak direla esatea ez zait guztiz zuzena iruditzen. “Protagonista” herrialde bat edo pertsona bat izan daiteke: herrialdeak noizbait eduki duen botere ekonomikoarengatik, politikoarengatik, geografikoarengatik... eta pertsona bat ere bai, protagonista izan daiteke, gure bizitza aldatu duen, aurkikuntza edo sorkuntza garrantzitsu bat egin duen momentuan. Protagonista izateak esan nahi du denaren arreta-zentroa zela edo dela, hau da, historikoki garrantzitsua den zerbaitekin nolabaiteko lotura duela. Protagonista izan daiteken norbait, Kolon izan daiteke; berari esker Europara, Amerikatik, gauza berriak ekarri zituen, ondorioz, Espainiak ere bere boterea handitu zuen bai geografikoki bai ekonomikoki horrela munduko herrialderik boteretsuena bihurtu zen Portugalekin batera, horrez gain Amerika aurkitu zuen. Aro Modernoan zehar beste protagonista asko ere egon dira, adibidez: Juan Sebastian Elkano, euskal marinela bat izan zen, historiako lehen gizakia Lurraren lehen ingurabidea burutu zuena, Galileo Galilei higiduraren lehen legeak formulatu zituen, Luis XIV. bere erregealdia, 72 urte eta 110 egunekoa, historiako luzeena da eta askoz gehiago.

Aurrez ohartuko zinetenez, ez dut emakumerik izendatu testuan zehar haiekin izandako tratua oso krudela izan baita. Galdetuko duzu: nolakoa zen antzinako emakumeekiko tratua? Zeintzuk ziren emakume garrantzitsuak? Zergatik? Gerrara joaten ziren? Zer eginkizun izan zuten gerretan? Aurrerakuntzarik egon al da emakumeen irudikapenean?

Emakumeak etxeko lanez arduratzen ziren, haurrak zaintzeaz, gaixoak zaintzeaz... Nekazaritza lanak egiten zituzten, hala nola, landatzea eta uzta egitea, artaldeak zaintzea, eta hori guztia gizonezkoena baino soldata askoz baxuagoekin, edo kasu askotan soldatarik jaso gabe. Esaterako, Grezian eta beste hainbat herrialdetan

emakumeak, talde gisa, ez zuten ahotsik gai politiko, militar edo zibiletan, emakumeak gizonen aginte patriarkal pean zeuden. Gerra garaiari buruz hitz egitean, emakumeek hainbat rol jokatu dituzte gatazka armatuaren egoeretan, gudu frontean laguntzetik hasi eta logistikan, espioitzan, erresistentzian, zaurituen zaintzan bukatuz nahiz eta beste rol gehiago eduki dituzten. Nire ustez, oso itsusia da gizonek nahi zutena izan eta egin zezaketela, aldiz, emakumeek gauza mugatuak bakarrik egin zitzaizketen. Gainera, lan gogorak ziren eta beti egin behar izaten zituzten, ordu askoz lan, lehen aipatu bezala, soldatak gizonezkoenak baino askoz baxuagoak izanik.

Boterea izan duten emakumeak egon dira ere, hau da, Egipton, Kleopatra bezalako erreginek genero-itxaropenei aurre egin eta maltzurkeriaz gobernatzen zuten edo Safo bezalako figurak poeta nabarmen gisa agertu ziren. Nire ustez, emakume gutxi horiek oso garrantzitsuak dira, beraiei esker zer egiteko gai garen jabetu baikara.

Mugimendu politiko batean emakumeei garrantzi handiagoa ematen hasi zitzaizkien, zehazki, bigarren olatu mugimendu feministan “Frantzian eta Ingalaterran XX. mendean garatu zen”. Emakumeek aitorpen handiagoa lortu dute eta gatazka armatuetan rol askotarikoagoak hartzeko aukera izan dute, haien papera funtsezkoa izan da, askotan gutxietsi arren, genero berdintasuna, esparru militarrean eta gerra egoeretan oraindik lortu beharreko helburua da munduko leku askotan.

Ondorioz, nahiz eta Historian zehar emakumeei emandako tratua onena ez izan, nire ustez garrantzitsua da egindako hobekuntzaz jabetzea, guztiok konturatu beharko ginateke, nahiz eta geure burua gainerakoak baino ahulago ikusten dugun gauza asko egiteko gai garela esan eta sinetsi behar dugu.